

## Gasteizen, 2004.eko azaroaren 26an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Luis Lizundia, diruzaina,  
Andres Urrutia, Jagon sailburua,  
Jose Antonio Arana-Martija,  
Adolfo Arejita,  
Jean Louis Davant,  
Patxi Goenaga,  
Emile Larre,  
Patxi Ondarra,  
Pello Salaburu,  
Ibon Sarasola eta  
Piarres Xarriton euskaltzainak,

Juan Jose Zearreta, kudeatzailea; Pello Telleria, idazkariordea; eta Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazkaria, zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Andres Iñigok, ahala J.L. Lizundiari, Henrike Knörr-ek, ahala A. Urrutiari, M. Azkaratek, ahala P. Goenagari.

Batzarra goizeko 10,20ean hasi da Gasteizko ordezkartzaren batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

**1. Aurreko akta onartzea: oharrik gabe onartu da.**

### 2. Hizkuntza gaiak

**2.1. «Onomastika: «Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilez» araua onartzea.** M. Gorrotxategik, Batzordearen idazkariak, jasoriko oharren berri eman du. Ondoren, P. Goenagak, berak aurkezturikoak azaldu ditu, *Donostia/San Sebastián, Vitoria-Gasteiz* kasuez eta, horien antzera, bere ustez zehaztasun handiagoa behar duten beste adierazpen batzuez ere bai. Erantzuna Jose Luis Lizundiak eman dio, kasuan kasurako irtenbideak eskainiz. Herrialdearen izena daramaten hitzekin (*Getaria Gipuzkoa, Getaria Lapurdi...*) deklinatzean azaltzen diren eragozpenak nola konpon daitezkeen argitzea eskatu du. -a organikodun hitzez ere argibide hobeak jartzea eskatu du. Eskaturiko argitasun horiek guztiok preseski azaltzea ontzat eman da.

**2.2. Antzinateko eskualdeen eta hirien euskarazko izenak.** J.L. Lizundiak aurkeztu du, zerrenda honek irakaskuntzarako (historian eta geografian batik bat) duen garrantzia azpimarratuz. Zerrendan ageri diren izenen aukera dela eta, M. Gorrotxategik, izen horiek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bidaliriko zerrendan oinarrituak direla argitu du. Oharrak abenduaren 12rako bidali behar direla gogoratu du.

**2.3. Hiztegi Batua:** P. Salabururen zuzendaritzapean *b-berriz* zerrenda, *basalanetik basauso*-rainoko oharrak ikusi eta erabaki dira.

### 3. Ohorezko euskaltzainak izendatzea:

Euskaltzainek aurkezturiko kandidatuen proposamenak, zeinek bere curriculumarekin, idatziz banatu dira. Ondoren, botazioa eginda, ondokoak izendatu dira euskaltzain ohorezko:

- Jose Luis Alvarez Enparantza ‘Txillardegi’
- Pello Apezetxea Zubiri
- Koldo Artola Kortajarena
- Federico Barrenengoa Arberas
- Josep Camino-Hasquet
- Jean-Baptiste Dirassar-Hiriart Urruty
- Joseba Intxausti Errekondo
- Jon Lopategi Lauzirika
- Francisco J. Oroz Arizkuren
- Jeran-Baptiste Orpustan
- Karmele Rotatetxe Amusategi

Idazkariak guztiei izendapenaren berri emanen die, abenduaren 17an dagozkien diplomak banatuko zaizkiela adieraziz.

### 4. Azken ordukoak

Euskaltzainburuak ondoko albisteak azaldu ditu:

**4.1. Andres Iñigoren semeak istripua:** Andres Iñigo euskaltzainaren semeak, Garikoitzek, Pirinioetan mendi-istripu bat ukan du. Ondorioz, Paueko ospitalera eraman eta bertan ebakuntza bat egin behar izan diote. Gaur Iruñera dakartela eta, A. Iñigo ezin izan da bilkurara etorri.

**4.2. Ander Manterolaren anaia hil:** Ander Manterola ohorezko euskaltzainaren anaia hil da. Euskaltzaindiak bere doluminak igortzea erabaki du.

**4.3. Martin Ugaldere senideen esker ona:** Martin Ugaldere senideek Euskaltzaindiari eskerrak emateko gutuna bidali diote, M. Ugaldere oroigailu batekin.

**4.4. Euskararen Eguneko ospakizunak:** Abenduaren 2rako, Euskaren eguna dela eta, egingo diren ospakizunetarako, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Diputazioaren eta Bilboko Udalaren inbitazioak jaso dira. Ahal duten euskaltzainak hara joanen dira.

**4.5. Abenduko batzarraz:** Euskaltzainburuak, halaber, abenduko bilkurak 16an eta 17an eginen direla jakinarazi ondoren, egun bakoitzeko programa azaldu du. Ondoren, batzarrotarako deiak banatu dira, bertan dauden euskaltzainei eskura emanez; etortzerik izan ez duten euskaltzainei postaz igorriko zaie.

**5. Gema Insausti eta Itziar Rekalde Euskaltzaindiko bi langileei zilarrezko domina.** Aurten, Gema Insausti eta Itziar Rekalde andreek, hurrenez hurren, Euskaltzaindiaren Iruñeko eta Gasteizko ordezkarietzako langileek, hogeita bosna urte bete dituzte Akademiaren zerbitzuan. Hori dela eta, Euskaltzaindiak, urteotan egindako lan zintzoa ezagutzeko, erakundearen zilarrezko domina bana eman die. Euskaltzainburuak ohoratuen lan bikaina goraipatu du eta han bilduriko euskaltzain guztien txaloen artean dominak eskaini dizkie.

Bilkura 14etan amaitu da.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria